

Gin zitroina



Eric Dicharry
ANTROPOLOGOA

Diruak dirua ekartzen baitu, tautologi-koa den legea errespetatuz, dirua gehien dutenak gero eta aberatsagoak izanen dira. Matematikoa da, sistemaren logika. Beraz, urtero, Oxfam Solidarité erakundearen zenbakiak ezagutzen ditugunean, zergatik gelditzen gara harriturik eta aho bete hortz? Duela gutti, Akizen, Bizi! mugimenduko Jon Palais militantearen epaiketa izan da. Militantea epaitu zuten, paradisu fiskalak salatzeko banku batean kadira batzuk lapurtu zituelako. Uste duzue, ekintza zuzena eta desobediencia zibila delakoen bidez, munduko aberatsak ikaratu zituztela? Horrelako mugimenduetan parte hartzen dutenek, zergatik parte hartzen dute haien kontzientziarekin ondo moldatzeko ez bada? Horrela pentsatzen dutenek beste galdera bati buruz pentsatu beharko dute: zergatik gizarte guztietan betidanik, ekintza zuzenak, mugimenduak eta altxamendu sozialak izandako maskaradak, bestelakoak izango dira gaur egun? Non kokatzen da historiaren motorra, mugimendu sozial eta klase borroketan ez badago? Zein da historiaren motorra, aberastasuna eta haiekin batera doazen lurraldeen edukitzea ez bada? Mundua ez da aldatuko geure burmuin *logi-zielak* (*Softwarea*) ez baditugu aldatzen. Ez da aldatuko “ukan” aditzak “izan”-ena erregularoki fagozitatuko duen arte.

Arthur Rimbaudek zioenez, ekintza indarra xahutzeko moldea baino ez da bizitza: urduritzea, berotzea, haserretzea. Hautaketaren aurrean gaudenean bi aukera ditugu beti: egitea edo ez egitea. Baina, ez egiteak ez du esan nahi deusik ez egitea, mundua kontenplatzea baizik: begiestea, begi ematea, so egotea. Zinikoez edota ahalkegabeek urrundik kontenplatzen dituzte egiten diren ekintzak. Haientzat ekintza horiek denbora eta indarra galtzea dira. REM taldeko Frédéric Beigbederrek usu hitz hauek kantatzen ditu: “*It’s the end of the world and I feel fine*/Mundua bukatzeaz dago eta ni ondo sentitzen naiz”. Haren ustez, bidea *gin-zitroin* batean dago, neska gazte politen galtzamotzetan dago nonbait. Hortik datoz nire galderak. Gaur egun, ziniko izateko diruduna jai behar da edo dirurik gabe sortzen dena ere ziniko izan daiteke? Sosaz beterik sortzen denak zertarako joko du sistema kapitalista desorekatu eta zuzengabearen kontra? Dena duenak zein interes du sistemaren kontra jotzeko? Eta erantzuna etikan kokatuko balitz? Moralean. Burmuinaren ahulezian. Azken finean, zergatik borrokatu eta bizi, boterearen moralak kritikatzeko, bizi izatekoaren ilusioa berreskuratzeko edota historiaren lerroak aldatzeko ez bada. Zertarako gara mundu honetan? Nork bere plazer hedonista, indibidualista eta berekoia garatzeko edo ditugun baloreetatik eta etikatik mundua aldarazteko? ■

Trumpetak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Txioak bidaltzen ditu goizeko lauak eta seiak artean kazetariak lo direnean, emazteak, beltzak, txiroak, indioak, amerikar kulture gile sosez okituak laidoztatzen ditu arraiki, mundua sutan irudikatzen du Txina, Europa ala Afrika aipatzen dituenean, Putinen adiskidea da, demokrazia *looser* delakoentzat dela dio eta ahulezia ez du altxor: neoliberalismoak ez du inoiz antzeko politikorik gobernura bultzatu eta izuaz haustear dago mundua.

Ameriketako Estatu Batuen ondotik, neurri apalago batean, Frantzia ere FNren iraultza igurikatzen dute elizek, nagusiek, Brigitte Bardot mitikoak, baita jendartearen parte handi batek

ere, salbamena, larderiatik, irainetik, latexeko azote kolpez lagundu erreforma sozialetatik etorriko dela sinetsiz. Ez dakigu zer egin sobera dugun libertatearekin eta prest gara kontsumo itzela betikoan ziurtatzearen libertate ezpalak zangopilatzeko.

Gutariko bakoitza, edozein dela aitzakia, sistemaren biktima sentitzen den honetan, boterearen hegalpean, bestearekiko mendeku harreman sadiko bezain masokista batean urtzen doa: auzoari eragin minak biziarazten gaitu eta maite dugu hori.

Trumpek ez duela bere mandatua bukatuko erraten da.

Parioak libre...